

# BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

## Euskal liburugintza urteko 1.000 libururen bueltan dabil

Kontuak atera gabe eta urtea bukatu barik badago ere, aurtan 1.000 liburu pasatxo argitaratuko dira euskaraz. Gailur historikoa, baina azpian gelditze bat izkutatzen duena, horietako liburu asko eta asko berrargitarapenak dira eta.

Euskal liburugintzak bizi izan duen hazkundeak baditu hainbat aje, Joan Mari Torrealdei soziologoaren ustez: euskal ekoizpena produkzio osoaren erdira iritsi ezinik dabil oraindik; liburu itzuliaren proportzioa handiegia da; euskal liburugintza osoaren ia %85 irakaskuntzaren eta literaturaren esparruetan biltzen da, garbi erakutsiz gainontzeko esparruetan euskarak agertzen duen presentzia urria.

### Jakineko zabalkundea

Elkar argitaletzeko Xabier Mendiguren Elizegik dioenez, argitaletxeek gehienez ere liburuaren aurkezpena antolatzen dute eta liburu eta txostentxo bana bidaltzen komunikabideei. "Gogoan izan gutxi garena, ez oso irakurzaleak eta askok erraztasun handiagoa dutela gaztelaniaz irakurtzeko", dio.

### Dirulaguntzak

"Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza izan du liburu honek" dakarte idatzita gaur egun euskaraz

argitaratzen diren literatur liburu gehienek. Kultura Sailak 312 milioi pta eman ditu kontzeptu desberdinetan azken bost urteotan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak, bestalde, eskola liburuetarako dirulaguntzak ematen ditu EIMA programaren bidez.

### Hainbat argitaletxe

Betiko argitaletxeek segitzen dute lanean: Elkar, Erein, Pamiela eta Ibaizabal. Duela gutxi lankide berria bildu zaie: Irungo Alberdania. Jorge Gimenezek eta Inaxio Mugika Iraolak sortua, urte T'erdian 16 liburu argitaratu ditu dagoeneko. Hauetako bi, Lertxundiren Otto Pette eta Sagastizabalen Kutsidazu

bidea, Ixabel, ondo saltzen ari dira.

### Euskal diskogintza

Euskal diskogintza ez da oso indartsua, baina bai konstantea. Argia aldizkariak iaz ateratakoaren arabera, azken hiru urteotan 41 disko kaleratzen dira batezbeste, ED formatoan gehienak. Euskal disko gehienek mila eta bi mila ale artean saltzen bide dute. Bost mila saltzea ondo dago. Sorotan Belek bere lehen diskoarekin 12.000 ale saldu izanak euskal musikaren promesarik finkoena bihurtu du.

Nobedaderik gehienak Durangoko Azokan aurkeztuko dira, abenduaren 7tik 1 Ira bitartean.



Durangoko Azokak bost egunez izango ditu ateak zabalik aurtan.

# Xabier Gereño, euskal idazle emankorra

Xabier Gereño, 70, idazle bilbotarra euskarak izan duen idazlerik emankorrena da. Azken hogeitaka urteotan 70 liburu idatzi ditu

euskaraz. Aurten zortzi, sei euskaraz eta bi gaztelaniaz.

Ekonomista ikasketaz, La Aeronautica S.A.n egin zuen lan 35 urtez eta Euskaltzaindian beste zortziz.

Familia euskaltzalekoa, gaztetatik hasi zen euskararen aldeko lanetan. Txistulari Xabier Gereño eta Anaitasuna

aldizkarietan idatzi zuen. Berak zuzentzen

zuen Cinsa diskoetxeak argitaratu zituen Benito Lertxundiren eta orduko abeslari askoren lehen diskoak.

Denetara 42 disko. Musika jaialdiak ere erruz eratu zituen, Ipar zein Hego Euskal Herrian. Hainbeste nabarmentzearren birritan egin zen espetxean eta konta ezin ahala



Xabier Gereño

aldiz komisaldegietan.

"Konplikaziorik gabe idazten ahalegintzen naiz, jendeak lasai irakur dezan", dio. Jendeak eskertu

egin dio ahalegina, haren liburuak milaka erosiz. "100.000 liburutik gora saldu ditut", aitortu du. Lehen zortziak izan ezik, gainerakoak berak argitaratuak.

Aurten kaleratu du bere lehen nobela gaztelaniaz.

"Harrigarria badirudi ere, Residencia Rochester-en arrakastak bultzatu egin ditu nire euskarazko liburuen

salmentak, adineko jendearen artean batez ere". Aurrerantzean hi hizkuntzetan idazten segituko du. Deustuko adinekoen egoitzan bizi da. Geldi ezin egon eta, denetatik antolatzen du egoitzan. Lanak bizirik sentiarazten du.

## Euskara Moskun aztergai

Urriaren 17tik 19ra bitartean M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, Moskun izan da, Europako Kontseiluak eta Errusiako Federazioko Hezkuntza Ministerioak antolatutako "Bigarren eta hirugarren hizkuntzak irakasteko politikak eta ereduak" izeneko biltzarrean.

Adituekin batera berrogeita hamarren bat goi mailako teknikok ere eskuhartu zuten bileran. Gai nagusia giza eskubideak hizkuntzen irakaskuntzan eta politikan izan zen, baita hizkuntza nazionalak, erregionalak, minoritarioak eta atzerrikoak curriculumean duten lekua ere. M. Karmen Garmendiak euskararen egoera azaldu zuen bere hitzaldian. Ondoren, eratu ziren talde guztietatik, hausnarketa talde batean aritu zen lanean.

### Arrasateko Udala.

Lehenengo aldiz udal honetan, Hirigintza batzordeko teknikoek euskara hutsean idatzi dute Arrasateko Hirigintzako Egitamu Orokorra Jendaurrera atera eta ondoko tramitazio guztiak ere euskaraz egingo dira. Euskaraz ez dakitenei begira, Arrasateko Udalak herriko itzulpen zerbitzu bati enkargatu dio egitarauaren gaztelaniazko itzulpena.

### Testuliburuak euskaraz

**EHUn.** Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararazko Errektoreordetzak hogeitik gora testuliburu euskaratu ditu azken bi urteotan, Euskararako Institutua bildumaren barruan. Soziologia, Zuzenbidea, Hezkuntza, Historia, Psikologia, Hizkuntzalaritza... denetariko gaiak jorratu dira. Liburuok Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza izan dute.

### Gipuzkoakoan auzia ere

**euskaraz.** Gipuzkoarrek eskura izango dute, nahi izanez gero, abokatuen laguntza eta defentsa euskaraz jasotzea. Hori guztia Donostiako Euskararen Udal Patronatuak eta Gipuzkoako Abokatuen Kolegioak lortutako hitzarmenari esker. Gipuzkoan dauden 1.500 abokatuetatik %30 omen da euskaldun, lauhun, abokatu inguru. Bizkaitarrek badute zerbitzu hau.

### Hedapen.

Euskal Estatistika Erakundeak, EUSTATEk, Hedapen izeneko datu banku elebiduna jarri du lanean. Suediako Estatistika Institutuak sortutako PECAxis programaren bidez dabil. Euskaraz zein gaztelaniaz, erabiltzaileak datu estatistikoak inporta litzake, informazioa taulatan edo iruditzen eratu, kalkuluak egin taulen barruan, etab. Ahalmen handikoa da eta erabilterraza.

# Akitania-Euskadi Fondoak 12 milioi eman ditu euskararen alde

Akitania-Euskadi Lankidetzarako Fondoek ezagutzera eman ditu aurten dirulaguntzak jasoko dituzten 77 proiektuak eta hartuko dituzten zenbatekoak.

Egitasmo honen bidez Euskal Herriko gizarte eta ekonomia eragileen lana bultzatu nahi da, akitaniar lankideekin batera elkarlanak aurrera atera ditzaten.

Proiektuek herrialde bietan

finkaturik behar dute izan eta alde bietako lagunek edo erakundeek aurkeztuak.

Euskara sustatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak 12 milioi pezeta inguru eman ditu, beheko laukian eraleusten diren proiektuen artean banaturik. Akitaniako Kontseilu Nagusiak eta Nafarroako Gobernuak ere, proiektuen bultzatzaileen arabera, antzeko kopuruak ematen dizkiete proiektu hauei.

## Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak Akitania-Euskadi lankidetzara fondorako

Proiektuak	Pts.
Bertsolaritzaren hiztegia	250.000
Galtzaundi, Tipi-ttapa eta Herriaren arteko egitura bateratua	1.000.000
Xirrista	1.300.000
Eskola.....bizia	1.000.000
Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak	1.000.000
Euskara eta irakaskuntza eleaniztuna Euskadin eta Akitanian	1.000.000
Elizen Arteko Biblia	2.000.000
Euskararen irakaskuntza sustapena helduekin	2.500.000
San Mixel Garikoitz Pastoral	1.400.000

Sara Villagra, Parisen bizi den hizkuntzalari paraguaytarra Euskal Herrian izan da urrian, hemengo hezkuntza sistema aztertzen. Bere herrira itzultzen denean, han ezarri berri den hezkuntza sistema elebidunean lanean hasiko da.

Jose Mari Irazusta, 37, usurbildarra, Argia astekariko zuzendari berria da irailetik aurrera. Lanbide Heziketan ikasia, Argiako gerente izan da azken hiru urteotan. Orain aldizkariaren gerentzia eta zuzendaritza era mango ditu. Aurretik IZ diskoetxean ibili zen, promozio lanetan.

Elena Etxalar, 31, irakasle zurukoaindarra, Nafarroako AEK-ko arduradun nagusia da. Iruñeko Irakasle Eskolan ikasketak egin ostean Lizarrako AEK euskaltegian aritu zen eskolak ematen. Hango arduraduna izan zen bi urtez. Beste hiru daramatza Nafarroako AEKren zuzendaritzan.

## Argitalpenak

### Language rights, individual and collective

Hizkuntza Gutxiengotuen Bulego Europarrak argitaratu du liburusk hau. Hizkuntza hauen erabilera administrazioan du gai nagusi. Arfé, Kuijpers eta Killilea txostenen berri dakar, baita Eskualde Mailako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartarena ere. Ingeleseztan eta frantseseztan argitaratu da.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia  
Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelez

Izen-deiturak: .....  
.....  
Helbidea:.....  
.....  
Herria: .....  
Kodea: .....  
Lurraldea: .....  
Tel.: .....

## Galdezka

### Erabilera baldintzak

**G** Zeintzuk dira a euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak?

**E** Garrantzitsuak izan arren, jarrerak ez dute berehalako eraginik hizkuntza jokabideetan. Eusko hiritar gehienak euskararen ezagutza eta erabilera sustatzearen alde daude. Gehiengoa euskara hezkuntza sisteman, administrazio publikoan eta komunikabideetan areagotzearen alde dago. Baina horrek bakarrik ez dakar norbere hizkuntza jokabidearen aldaketarik. Hau da, elebidunek, euskaraz hitz egin dezaten, beharrezkoa da, lehenengo, solaskide denek edo ia denek euskaraz jakitea eta, bigarren, norberak euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago hitz egitea. Hirugarren baldintza euskarak toki bakoitzean duen bizitasun etnolinguistikoa da, bere ospe eta indarra alegia.

**M. Karmen Garmendia.**  
Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

### AEK-ko ikaslekoa % 10 hazi zen iaz

Hogeita hamabi urte darama AEK-k helduen euskalduntze eta alfabetatze lanetan. Rikardo Arregiren ekimenez sortua, Euskaltzaindiaren babespean hasieran eta erakunde autonomo

legez 1979az gero, Euskal Herri osoko gau-eskola, euskal eskola eta euskaltegi asko koordinatzen ditu. Aizu! hilabetekaria eta Ele aldizkari pedagogikoa argitaratzen ditu.

### AEK-ko ikasleak herrialdeka

	92-93 ikasturtea	93-94 ikasturtea		Aldea % tan
<b>Araba</b>	1.071	1.173	▲	9,52
<b>Bizkaia</b>	5.960	6.731	▲	12,94
<b>Gipuzkoa</b>	3.080	3.368	▲	9,35
<b>Iparalde</b>	613	666	▲	8,65
<b>Nafarroa</b>	2.125	2.139	▲	0,66
<b>Euskal Herria</b>	<b>12.849</b>	<b>14.077</b>	▲	<b>9,56</b>

### ✓ Kontutan hartzeko

- Donostia Hiria Literatur Sariak 1995. Donostiako Udalak eta Kutxak antolatua, euskarazko nahiz gaztelaniazko lanentzat. Lanak onartzeko epea azaroaren 15ean bukatuko da.

- Gazteentzako Sketch Lehiaketa. Euskadiko Kutxak antolatua. Izena emateko epea urtarrilaren 25ean itxiko da. Bideo zintak, ordea,

martxoaren 20a baino lehenago, jasoko dira.

- Euskal kultura, Europak kultura mahaingurua eratu du Hizkuntza Gutxiengotuen Bulego Europarrak Bruselan azaroaren 22rako. Partaideak: M. Karmen Garmendia, Jose M. Rodriguez Ochoa eta Txomin Heguy.

**EUSKO JAURLARITZA**

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



**GOBIERNO VASCO**

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA  
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA

